

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 142/2021 martxoaren 4koa. Onestea Arabako turismoaren sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeetan COVID-19ak sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuak 8. artikuluan xedatzen du Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari dagokiola lanbide kualifikazioa eta enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza ekintzak sustatzeko ekintzak eta ekimenak gauzatzeko proposatzea eta haiek gainbegiratzea, bai eta lanbide heziketako zentroak eta Arabako beste erakunde batzuk hobetzea, autonomoei laguntzea, txikizkako merkataritza garatzea eta laguntzea, eta turismoa eta artisau jarduera sustatzea ere.

Turismoaren arloko eskumenak erabiliz, zuzendaritza honek Arabako turismo sektorea bultzatu, sustatu eta babesteko esparru egokia garatzen jardun du azken urteotan, eta, horretarako, dirulaguntzak emateko urteko deialdiak onartu ditu.

Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi egoera nazioarteko pandemiatzat jo zuen 2020ko martxoaren 11n. Gaixotasuna estatuan eta nazioartean horren azkar hedatzearen ondorioz, berehalako neurri eraginkorrak hartu behar izan ziren egoerari aurre egiteko.

Azken hamarkadan, Arabako Lurralde Historikoan turismoak hazkunde etengabea, egonkorra eta iraunkorra izan du. Alabaina, COVID-19ak eragindako pandemiak eta haren ondoriozko osasun krisiak geldiarazi egin dute hazkundera, eta turismoaren sektorea izan da kaltetuenetakoa bat, batez ere konfinamendu zorrotzaren, estatuko zein nazioarteko mugikortasunaren murrizketa eta mugen eta konfinamendu perimetralen ondorioz, jarduera murriztu eta ia erabat geldiarazteraino. Egoera hori zaila da guztiontzat, baina are larriagoa da irabazteko asmorik gabeko elkarrean kasuan, beste batzuek baino baliabide gutxiago baitituzte egoerari aurre egiteko.

Horiek horrela, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak enpresa txiki eta pertsona autonomo horietako batzuei laguntzeko tresna bat aktibatu nahi du

Arabako Lurralde Historikoan, herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko eta pandemia geldiarazteko neurriak hartu dira, bai eta larrialdi egoera hori gizartean eta ekonomian eragiten ari den kalteak arintzeko aldi baterako neurri bereziak ere.

Ekonomiaren arloan, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren lehen tasun erabatekoa da euskal turismo-sektorea babestea eta laguntzea, kaltea minimizatzeko eta, osasun alarma amaitutakoan, Arabako turismo sektorearen jarduera ahalik eta lasterren suspertzea lortzeko.

Horrela, COVID-19ak sortutako inbertsio gastuei aurre egiteko turismoaren sektoreko irabazteko asmorik gabeko erakundeentzako deialdi honek hainbat erakundek hartutako neurri ekonomikoen multzoa osatzen du, eta, beraz, horiekin guztiekin bateragarria da.

Horregatik guztiagatik, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emateko eta publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren, eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, turismo inbertsioko ekimenak arautuko dituen laguntza deialdia ezartzen da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako turismoaren sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeetan COVID-19ak sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen 2021eko deialdi publikoa.

Bigarrena. Deialdi hori arautu da kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta foru agindu honen I. eranskinean xedatutakoa.

Hirugarrena. Foru Agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako aurrekontuko 1.30.5.02.3700.781.00.01 partidaren kontura ordainduko dira, zeina 80.000,00 euroko zenbatekoaz horniturik baitago.

Laugarrena. Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin, administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 4a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

COVID-19AK ARABAKOTURISMO SEKTOREKO IRABAZTEKO ASMORIK
GABEKO ERAKUNDEETAN 2021 EKITALDIAN SORTUTAKO JARDUERA
GASTUEI AURRE EGITEKO EZOHICO LAGUNTZEN DEIALDIA

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da turismo sektoreko irabazteko asmorik gabeko elkarteei laguntzea, norgehiagoka prozedura bidez dirulaguntzak emanez, osasun krisiarekin eraginez egin beharreko inbertsioak eta lehiakortasuna hobetzeko inbertsioak egin ditzaten.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Foru Agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldiko aurrekontuetako partida honen kontura ordainduko dira: 30.5.02.3700.781.00.01 (xedapen erreferentzia: 105.477/000). Partida hori 80.000,00 euroko zenbatekoaz hornituta dago.

2.2. Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partidaren hasierako zuzkidura handitu ahalko da, hasierako aurrekontuaren ehuneko 100eraino, kasuan kasuko aurrekontu transferentzien bidez, baldin eta geldikinik bada Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskura ditzakete probintzia eremuko irabazteko asmorik gabeko elkarteek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistroan behar bezala inskribatuta badaude eta helburu soziala turismoa sustatzea badute edo Arabako Lurralde Historikoan proiektu turistikoa edo gastronomikoa bat garatzen badute. Landa garapenerako elkarteak kanpoan geratuko dira berariaz.

3.2. Horrez gain, erakunde onuradunek betekizun hauek bete behar dituzte:

– Enpresa jardueraren egoitza fiskala Arabako Lurralde Historikoan egotea.

– Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza jasotzeko unean.

3.3. Beren-beregi baztertuko dira Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntza izenduen bat jaso duten eskatzaileak (esleitzeko garaian hitzarmena izenpetuta egon edo ez), baita laguntza lerro honetako lehenagoko deialdien bidez emandako dirulaguntzak ezarritako epean egin edo justifikatu ez dituztenak ere, salbu eta baldintza hori ez betetzeko arrazoiak nahikoa justifikatuta badaude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritiz.

3.4. Ezingo dira dirulaguntza hauen onuradun izan onarpen prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa egiten duten entitateak, hala xedatzen baitu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikulua.

4. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

4.1. Proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak lagundu ahalko dira diruz.

Hiru eratakoak izan ahalko dira:

A) COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun krisiarekin zerikusia duen segurtasunarekin eta babesarekin lotutakoak, besteak beste:

1. Itxitura finkoak jartzea edo itxitura eramangarriak, bai jendea atenditzeko mahaietan, bai hainbat eremu bereizteko.

2. Ateak automatikoki irekitzeko sistemak.

3. Lekuak egokitzeko obrak, osasun segurtasuneko behar berrietara moldatzeko.

4. -Desinfektatzeko sistema automatikoak, agente patogenoak gutxitzeko sistemak eta higiene neurriak bermatzeko beste sistema batzuk.

B) Turismo irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak, esate baterako, honako hobekuntza hauek:

1. Honako hauek hobetzeko obrak: sarbideak, desplazamendu horizontalak edota bertikalak, komunak, ateak eta pasabideak, bai eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeke egiten direnak ere.

2. Ikusmena, entzumena edo ukimena erabiliz orientatzeko panelak edota euskarriak.

3. Zerbitzuei buruzko argibideak braillez edota ikusmen eragozpenak dituztenek irakurtzeko egokituak.

4. Web teknologiak, argibideak era autonomoan eskuratzeko aukera ematen dietenak desgaitasunen bat duten pertsona guztiei.

5. Honako hauek erostea: Joëlette aulkiak edo/eta pertsonaitsuak eta ikusmen urrikoak baliabide naturaletan ibiltzeko ezinbestekoak diren gailuak, bai eta turismorako baino erabiliko ez den beste edozein ibilgailu elektriko ere.

C) Erakunde eskatzailearen turismo jarduerak sortu, abian jarri, zabaldu eta dibertsifikatzeko beharrezkoak diren aktibo finkoetako inbertsioak, besteak beste, honako hauek eskuratzea:

1. Turistei alokatzeko bizikletak, bai eta umeak eramateko aulkiak ere.

2. Auto eta autobus elektrikoak.

3. Behaketa astronomikorako edo animalia espezieak behatzeko teleskopioak.

4. Instalazioak erabilera turistikorako egokitzeko obrak.

5. Produktu edo zerbitzu turistikoa eskaintzeko beharrezkoak diren altzariak eta ekipamendua.

6. Errotuluak, eguzki oihalak eta saretak.

7. Irudi korporatiboa diseinatu eta garatzea.

8. Ekipamendu informatikoa.

9. Informazio turistikoa ematen duten taulak, seinaleak eta euskarriak.

4.2 Dirulaguntzaren xede diren inbertsioak Arabako Lurralde Historikoan kokaturik egon behar dira.

4.3. Eskatzaile batek mota desberdinetako inbertsioak aurkezten baditu, eskaera bat aurkeztu beharko du inbertsio mota bakoitzeko (gehienez 3 eskaera eskatzaile bakoitzeko).

4.4. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta onuradunak ordaindu egiten baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inolaz ere ez dira diruz lagunduko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

4.5. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzeari baimentzen da, betiere Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 27. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

4.6. Ez da diruz lagunduko erostea eskatzailea ez den beste jabe batek lehenago erabilitako ekipoak eta/edo inbertsioak.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

Deialdi honen onuradunak diren erakundeek 2020ko azaroaren 14tik 2021eko azaroaren 12ra bitarteko aldi egin beharko dituzte inbertsioak, bi egun horiek barne.

6. artikulua. Laguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Foru agindu honetan jasotzen diren laguntzak diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 80eraino iritsiko dira (ikus Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, 7.3 oinarri orokorra). Nolanahi ere, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 8.000,00 eurokoa izango da onuradun bakoitzeko.

6.2. Hala ere, deialdia ebatzitakoan, ez bada 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kreditua agortu, sortutako gerakina erabili ahal da, hainbanaketaz ehuneko 90eraino handitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehuneko.

6.3. Laguntza eskatzen duen erakundea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetako laguntza baten onuraduna izan bada

programa honen kontura onartutako proiektuen antzeko beste batzuetarako, diruz lagundu daitekeen oinarria egokitu egingo da, arautegi honetan ezarritako gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko.

6.4. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbateko hau ezartzen da, esleipena egiten den unerako: 1.000,00 euro.

7. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balorazio Batzordea honela egongo da osatuta:

Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan eskuragarri dagoen erregistro elektronikokoan, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

AFAn egoitza elektronikokoan zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikokoan identifikatzea, ziurtagiri elektronikoko baten edo BAKO sistemaren bidez: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikokoan: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2021eko apirilaren 23ko 14:00etan amaituko da.

8.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikokoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

– a) Eskatzailearen jarduera memoria (lokalaren kokapen fisikoa, jardueraren xedea, etab.) eta dirulaguntzaren xede diren inbertsioen memoria (inbertsioen beharra eta eta nola aurreikusten den hobe dezaketela eskatzailearen lehiakortasuna).

– b) Aurreikusitako gastuen aurrekontu banakatua.

– c) Lana egingo duen edo egin duen kanpoko profesionalaren edo hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proformako edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua).

– d) Laguntzen xede diren inbertsio/jarduketeki dagozkien eskaintzen eta/edo aurrekontuen eta/edo fakturen fotokopia. Aurkeztutako inbertsio/jarduera batek kontratu txikien muga gainditzen badu (40.000,00 euro obretarako eta 15.000,00 euro gainerakoetarako), ondasuna sartu baino lehen eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak erantsi beharko dira, eta zer eskaintza hautatu den eta zergatik azaldu beharko da.

– e) Estatutuen fotokopia.

– f) Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroko erregistroaren ziurtagiria, edo, fundazioen kasuan, erregistro egokian erregistratu izanaren frogagiria.

– g) Diruz lagundutako jardueretan BEZaren aitortpena aurkeztu beharretik salbuetsita ego-tearen frogagiria, halakorik bada. Salbuetsita egon eta dokumentazio hori aurkezten ez bada, BEZa ez da diruz lagunduko.

8.6. Erakunde eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabidearen eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako jakinarazpen guztiak.

8.7 Dirulaguntza eskabidea aurkezteak baimena ematen dio organo kudeatzaileari Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoeraren ziurtagiriak lortzeko.

9. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

9.1. 4.1 artikuluan zehaztutako inbertsio mota bakoitza artikuluan honetan zehaztutako irizpideen arabera baloratuko da

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak egokitzapen lanak egin ahalko ditu, entitate bakoitzak aurkeztutako inbertsio eskaerak banatuz edo multzokatuz, horrela 4.1. artikuluan ezarritakora hobeto moldatzen dela ulertuz gero.

a) Inbertsio mota (25 puntu gehienez).

Osasun segurtasunarekin eta babesarekin lotutako inbertsioak (A mota)	25 puntu gehienez
Turismo irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak (B mota)	15 puntu gehienez
Turismo jarduerak sortu, abian jarri, zabaldu eta dibertsifikatzeko aktibo finkoetako inbertsioak (C mota)	5 puntu gehienez

b) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertze beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez 25 puntu).

Eskaera aurkezteko unean eskabidea osorik zegoen, eta enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila oso ona izan da.	25 puntu
Eskaera aurkezteko unean eskaera osorik zegoen, baina enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila ez da nahikoa izan.	20 puntu
Eskaera aurkezteko unean eskabidea ez zegoen osorik, baina geroago osatu da, eta enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da.	15 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	5 puntu

c) Proiektuaren berrikuntza maila, oro har, eta zein neurritan laguntzen duen turismo eskaintza dibertsifikatzen (20 puntu gehienez).

Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du, eta eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du.	20 puntu
Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du, edo eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du.	10 puntu
Proiektuak ez du izaera berritzailearik eta ez du eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen.	0 puntu

d) Aurreko ekitaldietan emandako dirulaguntzen xedeak zenbateraino gauzatu eta bete diren (gehienez 15 puntu).

Gauzate eta betetze maila oso handia (ehuneko 85 baino gehiago onartuta, esleitutakoaren aldean) edo alde zuzenetik dirulaguntzarik ez duena	15 puntu
Gauzate eta betetze maila handia (ehuneko 75 baino gehiago onartuta, esleitutakoaren aldean)	10 puntu
Gauzate eta betetze maila ertaina (ehuneko 60 baino gehiago onartuta, esleitutakoaren aldean)	5 puntu
Gauzate eta betetze maila txikia (ehuneko 60 baino gutxiago onartuta, esleitutakoaren aldean)	0 puntu

e) Aurkeztutako jarduerak zer mailatan egokitzen zaizkien Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren turismoa sustatzeko jarduerari. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak proiektuari interes berezikoa iriztea (gehienez, 15 puntu).

Egokitzapena argia edota zuzena da, eta interes bereziko proiektu irizten zaio.	15 puntu
Egokitzapena argia edota zuzena da, baina ez zaio interes bereziko proiektu irizten.	10 puntu
Egokitzapena ez da argia, ez zuzena, eta ez zaio interes bereziko proiektu irizten.	5 puntu

9.2. Edonola ere, lerro honetako dirulaguntzen onuraduntzat eman ahal izateko, eskatzaileak deialdi honetako 3. artikuluan ezartzen diren betekizun guztiak bete beharko ditu eta, horrez gainera, aurkeztutako jarduketan multzoak gutxienez ere 50 puntu lortu beharko ditu balorazioan.

9.3. Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

9.4. Baldin eta eskaerako inbertsio batzuek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailaren ustez ez badute behar beste laguntzen dirulaguntzaren xedea lortzen, partida horiek kanpoan utzi ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan. Era berean, erakunde onuradunak 6.1 apartatuan ezartzen den diruz laguntzeko moduko gehienezko aurkorkuntua agortzen badu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ahala izango da diruz lagunduko diren gastu kontzeptuak zehaztea.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

10.1 Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, dagozkion ebazpenak emango ditu. Ebazteko epea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

10.2. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

10.3. Jakinarazitako ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, baina, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foru Gobernu Kontseiluari, egintza jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean, egintza jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

11.1. Dirulaguntzak kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala likidatuko dira, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

11.2 Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoa.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkoekin, zeinak interesdunaren esku egongo baitira, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura egon beharko dute eskatuz gero.

Bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen arduraduna.

11.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren zenbateko justifikatua ordaintzeko betebeharra onartzeko, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2021eko azaroaren 12ko 14:00ak baino lehen:

– Egindako jarduketan/inbertsioen memoria. Obrak eginez gero, obren argazkia ere aurkeztu behar da memoriarekin batera.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehe-tasunak, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

– Justifikazio fakturen zerrenda; honako hauek jaso behar ditu: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data, ordainduta badago.

– Ordainagiriak eta gainerako frogagiri baliokideak.

– Baldin eta gastuak kontratu txikien zenbatekora (40.000,00 euro obretan edo 15.000,00 euro gainerako kontratuetan) heltzen badira eta kopuru horiez gaindikoak badira, hautapenaren justifikazioarekin batera, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eta justifikazio txostena ere bai, non eta ez den aurkeztu eskaera egiterakoan, eta gerora gastu erreala kontratu txiki gisa ezarritakoaren beste edo hori baino gehiago bada.

Ez dira dirulaguntza ordaintzeko aurkeztutako justifikazio fakturatzat hartuko eskabideari erantsi zaizkionak. Onuradunak berriro aurkeztu beharko ditu faktura horiek, aurrez zehaztutako gainerako dokumentazioarekin batera.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua.

Profesionalek emandako fakturei dagokienez, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren arduraz izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazioaren txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada dagozkion atxikipenak ez direla ordaindu, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

11.4. Onuradunak fakturak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan 2022ko apirilaren 2ko 14:00ak baino lehen ordaindu izana justifikatu ondoren ordainduko du Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren justifikatutako zenbatekoa. Formatu hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da fakturak ordaindu izanaren justifikazioa:

– Jatorrizko banku ziurtagiria, honako datu hauek zehazten dituenak: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna, izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko ziurtagiria, faktura jaulki duenak sinatuta edo zigilua jarrita, datu hauek zehaztuta: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

– Bankuko jatorrizko kontu laburpenak, posta arruntez jasoak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Diruz lagundutako jarduera zehazten duten erosketa edo zerbitzuen agiriak edo ordainagiriak, ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen dutenak.

11.5. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2021erako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalia atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

11.6. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epemugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira agiriak.

11.7. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

11.8. Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu eta zenbatekoetan aldaketak onartu ahalko dira, baldin eta hasieran onartutako diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren muga gainditzen ez bada eta dirulaguntza jasoko zuen kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten badira, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

11.9. Dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko nahiz hura kobartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa elektronikoki aurkeztu beharko da erregistro elektronikoa, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa ere kontuan hartuz.

11.10. Baldin eta 6. artikuluan ezarritako dirulaguntza muga aplikatu bada, onargarria izango da diruz laguntzekoa den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe, ordea; alabaina, beharrezkoa izango da betetzea dirulaguntzaren xedea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrezkoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehuneko.

11.11. Lehen aipatutako epeak igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu ez bada, edo aurkeztu beharreko gutzia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

12.1 Oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamabigarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira foru agindu honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara, bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

12.2 Laguntzen deialdi honek bete egingo ditu Europako Batzordearen unean uneko erregelamendu indardunetan ezarritako "minimis" arauak. Horretarako, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ezin dela izan 200.000,00 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

13. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru agindu hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onar dezan.

14. artikulua. Eskerak egokitzea

Foru agindu honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak – dela erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritzi, proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurreko kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen

zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrora eraman ahalko dira ofizioz.

15. artikulua. Azken klausula

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mende ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentzien urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onesten baitu, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.